



► Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

► Zinema Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO HIRU FILM DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 18.ZINEMALDIAN

Aurten, bizi dugun egoera dela-eta, ikastetxean bertan ikusi ahal izango dituzte filmak. Giza eskubideen inguruko hausnarketa egiteko gida didaktikoekin osatzen da Terra Willy, Asto Erregea eta Vitoria, 3 de marzo pelikulen eskaintza. Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 26 arte.

Terra Willy, Asto Erregea eta Vitoria, 3 de marzo dira Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldian ikastetxeei eskainiko zaizkien filmak. Zinemaldia apirilaren 23tik 30era izango da. Aurten, COVID-19ak sortutako egoera dela-eta, saioak ez dira presentzialak izango: ikasleek geletan ikusi ahal izango dituzte online moduan zinemaldian zehar, apirilaren 26tik 30era. Eskaintza doakoa da eta www.zinemaetagizaeskubideak.eus webgunearen bidez eman dezakete ikastetxeek izena martxoaren 26 arte. Izen ematea mugatua izango da aurreikusitako bistaratzeko kopurua bete arte.

Urtero bezala, Giza Eskubideen Zinemaldiak filmak lantzeko gida didaktikoak prestatu ditu. Proiektzioak ikusi aurretik eta ondoren haur eta gazteak giza eskubideen inguruan sentibilizatzea eta kontzientziaztea da helburua.

Filmen gai nagusiak honako hauek izango dira: elkartasuna, ingurumenarekiko errespetua, parte-hartze soziala, demokrazia eta Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandako karga polizial baten ondorioz bost langileren heriotza.

Zinemaldia Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatzen dute.

Honako hauek dira filmen ezaugarriak:

Terra Willy (90 min.) **Euskaraz**

Adina: 6-9 urte

Sinopsia: Willy bere gurasoekin misio espazial batean bidaiatzen ari denean, bera doan espazio-ontziaren hegala suntsitzen da. Bat-batean bere aita eta amarengandik urrutiratu eta bere kapsula esploratu gabeko planeta basati batean lurreratzen da. Buck biziraupen-robotaren laguntzarekin, Willy bere burua babesten saiatzen da, norbaitek erreskatatu zain. Willy-k eta Buck-ek, Flash izena duen lagun estralurtar berri batekin batera, arrisku anitzi aurre egin behar diete, planetaren flora eta fauna ezagutzen duten bitartean.

Asto Erregea (99 min.) **Euskaraz**

Adina: 9-12 urte

Sinopsia: Lehoi Erregeak, oihaneko erregeak, erretiroa hartzea erabaki du eta bere ondorengoari sinesgarritasuna emateko, bere kontseilaria den Miss Finak eta berak hauteskundeetarako deia egitea erabaki dute. Manguk, garbitzailea den asto zoriontsu eta umil batek, ustekabean hautagai popularra izaten amaituko du. Lehoi erregearen "legezko" oinordekoari aurre egin beharko dio, bere hautagaitza Miss Finaren plan makabro baten barnean dagoela jakin gabe. Tronuaren kontrolpea izateko, Miss Finaren helburua hautagai berria bere agindupean egotea izango da. Horretarako, Lehoi Erregea tronutik kentzen eta bere semearen oinordekotza galarazten saiatuko da.



- ▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
- ▶ Zinema Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Vitoria, 3 de marzo (90 min.) **Gaztelaniaz**

Adina: 13 urtetik gora

Sinopsia: Hainbat hilabetez lan baldintza duinak eskatzeko greban egon ostean, langileriak lanuzte orokorrera deitu du Gasteizen. 1976ko martxoaren 3an, Zaramaga langile auzoko eliza batean milaka langile batzartuko dira. Kanpoaldean pertsona ugari bilduko dira eta haien aurrean Polizia armatuko ehun bat agente kokatuko dira. Poliziaren esku, bost langile hilko dira eta ehundik gora zauritu. Begoñak, klase ertaineko neska gazte batek, lehen pertsonan biziko ditu gertakari hunkigarri horiek. Filma arrakastatsua izan da zinemaldi ezberdinetan, besteak beste, Puglia International Film Festival jaialdian.

Informazio gehiago: 943 48 19 75 / zinema_gizaeskubideak@donostia.eus